



SURFA KIROLA BAINO GEHIAGO DELAKO

Kimetz Martinez eta Jorge Malkorak 'Ertza' erakusketa jarri dute GKo Galerian; azaroaren 6ra arte ikusi ahal izango da > 5

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2010-10-17

VIII. URTEA 2.102. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



A. ALTUNA

JUAN KRUZ IGERABIDE
IDAZLEA

«Detektibe lan pixka
bat eskatzen zaio
irakurleari hasieratik»

ADUNA Genero berri bat probatu nahi izan du idazleak
'Misterioa argitu arte' gazteei zuzendutako nobela beltzarekin 4



Euskal Herri osoko elkarteetako kideak izan ziren atzo Tolosan. I. TERRADILLOS

Egun-pasa Gorren Komunitatearen VII. Sentsibilizazio Astearen baitan

TOLOSA Gainditzen elkartearen egoitza berria
eta Gorrotxategi museoa bisitatu dituzte 7

Zalduna izan da bietan azkarrena

UGANE Intsausti txirrindulariaren eta Garmendia
zaldunaren arteko apustua egin dute jaietan 6

SONIA ULAZIA PEDAGOGOIA

«Harremanek ematen
diguten gizarte-laguntza
ezinbestekoa da»

IKAZTEGIETA Komunikazioaz eta laguntasunaz
hitz egingo du bihar 17:30ean Liburutegian 7

K Komikia

Gorka Salaberria



» Herrira begira

Aimar Sagastibeltza
Futbol jokalaria

Denboraldira emandako hasera itxaropentsue txurmioko lesio batek oztopatu zien. Ze alukerie. Gañea, hiru bat aste geldik

eon beharren laugarren euneako hasi izanak mesede gutxi in zien. Badot ba garaie situazio hotan jokabide zuzena ta pazientzie eukitzeko e! Beño ez ikasten orden... aixx. Ba partidu bat utzi ondoren gañontzekoak hortzak estutuz miñez jokatu dittot eta nere jokacarran nabarritu da. Beño beno, osatuxe naiz eta azken partidun sentazio onak utzi nittun. Animo.

Anekdota gisen, hainbeste bildur ematteiten hegazkiñe bitan

hartu beharizandut azken astetan. Aurrez bizituteko esperientzi txar bat tarteko, transporte hau 'kalbario' bat da netzat, izaute nahi nittuzken leku askota joatea eragozten diten problema.

Temaz aldatuz, kuadrillekoa doten Mikel Nievek 'Españiko Itzulín' indakoa kalifikatzeko modu aproposa aurkitzea konplikatu da. Etaparo puntte-puntten ibiltzea aski ez eta etapaik inportantena irabazi zun, itzulie 12. bu-

katuz. Honen dimentsio ta "reperkusiua mundu mallekoak die, ikeragarrie. Leitzarrak osota aleraturuk euki gatto, batipat irabazitako etapan; etzen bela allatu metaljeje.

Ongi izautzen dotenez, bere berezko dohai, sakrifizio, lan, sufrimendu, planifikazio eta ilusioan batuketak emandako emaitza dela esan dezaket. 2010eko irailen 13e eun historikoa da ia Leiltzentzat. Pillotai daokionez, Oi-

natz ta Abelek «ametsetak» uda osatu due, Leitze modan daula konprobatuz jeje.

Torneo guzitan protagonista nausik izandu die eta elkarrekin jokatutakoa (nola ez) irabazi! Lau terdiko txapelketan hautagai nagusitan daude, beño tamalez bitako bat biden geldittuko da, elkarren kontra nahi beño lenao jokatuko baitue.

P.D.: Iker Gomez eta Arantxi ('ariztimuñotar printzesa') zoriandu nahi dittot beren lehenbiziko umen jaiotzangatik! Kintako azkarrena izan za eh Iker! jeje Zorionak.

2010-09-13 Ahazteziñe

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORTZETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Desagertzearen liburua XVII



» Uzturretik

Koldobika Jauregi

Hogeita bat mendearen globalizazioari esker, dena desagertzen joan zen. Eta noski geure kolore eta usaiak ere bai. Garai horiek arte dena nahiko bere lukuan zirudien baina komunikabide globalizatuei esker kutsadura areagotu zen ohiturak guztiz aldatuz. Hizkuntza, gizarte, kultura, ba-

rruraino sartu zen, norberaren mundu mapa aldatuz. Eta horrela, emeki-emeki desagertzen.

Batuzean dirudi bizitakoa edo gogoratutakoa ez dela benetan gertatu eta akaso birtuala izan dela, hori baita globalizazioaren adarretakoa bat.

Kolore eta usaiatara bueltatu nahiko nuke... anileztatuko maindire urdinez mintza, txuri nuklearra izan aurretik, eta urdin herretaz geure baserri bazterretan.

Kearra, 'siena tostada' izan daiteke? Gaur egun existitzen ez den gai eta kolorea eta noski usaina, kakalardo azalaren kolorekoa, baserrietako sukalde zaharretan irudikatzen ziren mantxak 'Belmezko' aurpegien

antzeria, usaina, nola esan ba, beno tximini bat ba duzue sartu buruabarruan eta usaindu... gutxi gorabehera hori da kearra. Lixiba, nola ahaztu gazte garaietan igogailuak zenbait portaletan jarri baino lehen, eskailera gora eta beheara ibili behar eta noski egurrezkoak ziren eta beti ia egunero topatzen nuen lau hanken gainean jarritako andre batekin edo besteekin, eskailera haiek garbitzen ari zena, lixibatzen? Herdoil hitza balego egurrezkoak, horixe izango litzake lixibak egiten ziona egurrezko eskailera haiei, bere beta guztiak ateriaz, kolorea aldatuz, ez bai zuten barnizik eta kolorea aldatu egiten zitzaizaien... grisaxka, oso berde argiantxa?

Eta noski lixibaren usaia gogoratu dezaket eta metalezko baldearen soinua eta andre haiek errezoan egongo balira bezala... egunon! Bai egunon, kontuz ez zapaldu hor, oraindik ez da lehortu, periodiko gainetik mesedez...

Kareztatutako baserri, baratze eta arbola ipurdiak... eliz paretak, angelusa, txuri hura 'marfil' kolorea izan zitekeen?

Kolore haiek ez zuten distirarik, ez noski gero etorri zitzaigun distira globalizantea.

Kolore haiek lasaia, pausatua ziren, egunerokotasunaren murgildutakoak, oso aspalditik baitzetozen.

Eta pilotutako armiarma sarien koloreak... oso zuritik grisa iluna

arte; edo hautsarena, baina hautsa askorena; edo herdoilarena: baserriko bazter guztietan ageri zen kolore berezi hura, hiltzeak, alanbreak, baserri tresnetan edo milaka lata eta pote zaharretan.

Denak lotuta bere soinuekin... eta denbora, denboraren neurriarekin.

Urdin sendoa mahoizko errotpetan eta lana beti lana.

Beltza ikatzean, txapeletan edo apaizaren sotanan, denak bizitzaeren txondoretatik ateriak.

Festetako dantzarien gona gorriak, urrutitik ekarritako oihalgarestiak, bira eta bira plaza erdian.

Artilearen edo lihoaren kolore eta balore. Zintzarri edo kutxa dotoreen presentzia.

Marroi eta berdeak, halakoak ziren garai bateko kolore batzuk eta gaur gau isilean daudenak.

Eguraldi aldaketak mesede egin die produktuei

Azoka » Perretxiko zerrenda nabarmen egin zuen gora atzoko azokan; bertako ondoko asko zeuden postuetan.

ERREDAKZIOA

Aste honetako eguraldi aldaketak oso eragin positiboa eduki du azokako hainbat produktutan. Perretxiko zerrenda adibidez, nabarmen egin zuen gora euria dela eta. Bertako ondoko asko ikusi genuen, eta hauekin, ziza horiak eta kalitate handiko nikaloak. Hortaz aparte, kanpoko gorringoak eta mendiko angulak ere izan ziren.

Barazki zerrendan ikusitako aldaketa ere nabarmena zen. Oraindik izan ziren agortzearen dauden udarako piparrak edota berenjenak. Negukoak ordea goraka egin zuten. Bai babarrunak, baita azak, azalareak, bruselazak edota romaneskuak goraka hari dira.

Berdura plazan astero egoten diren apaingarri eta baratzerako landareen postuz aparte, piparrak erretzen duten postua ere egon zen, enparantzaz guztia usain goxoz azbetetzen.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA	Merk.	Gares.
Landareak		
Ziklamena	5,50	-
Albahaka	1,50	6,00
Menta	1,50	6,00
Zainzuria	2,80	-
Salbia	1,00	1,20
Zilantroa	1,50	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Onddoa	20,00	-
Ziza horiak	18,00	-
Kuletroa	35,00	-
Saltsa perretxiko beltza	20,00	-
Mendiko angula	20,00	-
Nikaloa	20,00	-

Fruta		
Kiwia	3,50	-
Errezil sagarra	2,00	4,00
Urra	2,00	3,00
Intxaurra	2,50	4,00
Udarea	1,00	-

Barazkiak (sorta)		
Ziazerba	1,00	-
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	5,00
Apioa	0,50	-
Espinaka	2,00	-
Porrua	1,00	3,00

Barazkiak (kiloa)		
Tipula beria	1,50	-
Babarrun zuria	8,00	-
Porruak	1,00	4,00
Babarruna lekatan	10,00	12,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Tomatea	3,25	4,00
Rukula	12,00	-

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Fruta		
Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00

Barazkiak (kiloa)		
Kalabaza	1,60	3,04
Baratxuri	1,60	6,00
Azenarioa	2,00	2,50
Dilistak	2,40	-
Txitxirioak	2,40	-
Arroza	1,90	2,00

Barazkiak (sorta)		
Tipula	1,75	2,00
Erremolatxa	1,60	-
Zerba	2,00	-

Iragarki laburrak

LAN ESKAINTZA

■ **Garbiketa.** Uzturre Garbiketaren enpresak lau langile kontratatu nahi ditu. Interesatuak, bidali argazkidun curriculumak uzturregarbiketak@gmail.com helbidera edo deitu 678-99 25 49 telefono zenbakira.

ALOKAIRUA

■ **Baserría edo borda.** Baserría edo borda alokatuko genuke. 634-45 9110.

GALDUTAKOAK

■ **Dirua.** Duela 4 aste, diru bat topatu nuen kalean. Galdu duenak, deitu dezala 628-35 25 66 telefono zenbakira.

Zurea da hitza



Zulo digitala

Herri txikietan teknologia berriak zabaltzea ez da errentagarria eta honek handiagotu egoten du herrien arteko zulo digitala.

Herri txikietan bizirik garen askok eta askok konturatua izango zarete mundu digitala gure herrietara besteetara baino beranduago iristen dela.

Askotan teknologi berriekiko diferentzia hori herrialde ez garatuak konparatzen dituzte baino inork ez du serioski hartzen hemengo herrien arteko ezberdintasuna. Internet denon eskubidea dela sinestaz nahi digute telebista anuntzio inozoekin.

Argi dago ez dela berdina Ceuta edo Paris, baino ezta Tolosa eta Oresa ere. Telefonikak linea zaharrak ditu eta ez ditu berriak nahi banda zabala eta telebista digitala bezalako zerbitzuak iristeko, Euskaltelek Wimax zerbitzua eskain-

tzen du zerbitzu erdia emanaz eta bikoitza ordainuz eta beste konpainiek ezin dute lehiatu Telefonikako lineak mugatzen baitituzte denak.

Garatu gabeko lurraldeen eta garatutakoaren arteko zulo digitalaz hitz egin ohi da sarri baino ez dugu urrutira jo behar zulo hori ikusteko. Ez dakit zer den okerrago denok interneterako eskubidea dugula sinestaztea edo teknologia aspaldi egonda erabateko zabal-kundea enpresen errentagarritasunaren menpe dagoela konturatzeko.

Eneko Maios.

Abesbatza lehiaketa

Udazkenarekin batera iritsi zaigu aurtur ere abesbatzen lehiaketa. Tolosako Hodeiertz egongo dela irakurri dute eta lerro hauek zorian-tzeko aprobetxatu nahi ditut. Zoriorak Hodeiertz!

Tolosarra.

TOLOSALDEA
GOMAILAKO L.B. INSTITUTUA

FORMAZIO IKASTAROK (Langile eta langabeharrentzat)

IKASTAROA (KREDITO FORMAZIOA)	ZIBILA	MAIATZ	IRAILA
Tertio alfilera, kalitate orria eta datu berrak (sistemak) I	40	2010-10-23	
Tertio alfilera (matematika)	80	2010-10-23	
Galdeferrin eta Inarrieta garapena	80	2010-10-23	
Kalitatearen indutzea (NE KANBIOAREN ETORRIAK)	40	2010-10-23	
U.N.E. Frenagailuen programazioa (ERREKIMAIEN)	40	2010-10-23	
Enfusiaren ereduak ikuskeren ereduak	80	2010-10-23	
Frenagailu ikuskeren ereduak	80	2010-11-2	
Enfusiaren ereduak	40	2010-11-2	
Berrikuntza instalazioen mantua (JOSU ERREBATZARRENA)	40	2010-11-2	
Frenagailu automatizazioaren ereduak	20	2010-12-13	

Aholkularitza orokorra: Lunes a Iratze, 10:00 a 13:00

ESKAITZA OSOA ETA PROGRAMAZIOAK WEB ORRIAN
www.tolosaldea.com

Matrikula eta informazioa:
Telef. 943 65 11 47
Santa luzia, 17 - 20400 TOLOSA
E-mail: idezkaritza@tolosaldea.com
Web: www.tolosaldea.com

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

JUAN KRUZ IGERABIDE | Idazlea



A.A.

«Gazte literaturan ohikoa izan den talde egitura ere badu lanak»

Aduna » 'Misterioa argitu arte' gazteei zuzendutako nobela beltza argitaratu berri du Adunako idazleak.

AINHOA ALTUNA

Juan Kruz Igerabidek (Aduna, 1956) bere azken lana aurkeztu du. Gazteengana zuzendutako nobela beltz batekin dator kigu oraingoan, *Misterioa argitu arte*, izeneko. Oraingoan, gazteak detektibe bihurtuko omen ditu.

Zer nolako liburua dugu argitaratu berri duzun 'Misterioa argitu arte'?

Detektibe liburu bat dela esango genuke, baina ez da ohiko detektibe istorioa, gaztetxo talde batek egiten baitu lan hori. Nobela beltzen ohiko heriotzetatik mugan geratzen da eta ez dela erabat beltza esango nuke. Gatetxoentzako egindako lan honek badu intrigatik, abenturatik, eta gazte literaturan ohikoa izan den talde egitura ere. Beste liburu batzuetan ere jolastu izan dut apur bat baina honako lan honekin beste genero bat probatu dut.

Detektibe lanetan jarriko al du irakurlea?

Apur bat bai, detektibe lan pixka

bat eskatzen zaio irakurleari hasieratik. Pertsonaia nagusiak ezaugarri batzuk ditu eta horiek narratzaileen barruan pixkanaka ematen joaten direnez, irakurleari susmoak sortzen joaten zaizkio. Datu batzuk argiak dira, baina joko horretan jarraitzen dut istorioaren amaiera arte.

Liburuko protagonista Esther izeneko neska gaztea da. Norbaitekin pertsonifikatuko al zenuke, hau da, norbaitegan pentsatuta sortu al duzu?

Estherren oinarrian nik ezagutu ditudan ikasle dezente egon daitezke, baina badut Esther markatu duen bizipen bat. Duela urte dezente Patxi Zubizarreta eta biok gure liburu batzuen aurkezpena egitera joan ginen ikastetxe batera. Bertan bazen neska itsu istorio zale bat, gure liburuak brailean irakurri zituen. Komentario eta marrazki batzuk egin zizkigun opari gisan. Hunkigarria izan zen. Orduz geroztik, Patxi eta biok elkarrengarengana, gogoan izaten dugu

esperientzia hura. Etxeko bizipe-nek ere izango zuten eraginik. Hainbat oihartzunekin osatutako pertsonaia da Esther.

Liburuaren marrazkiak egin dituen Morkotx izan da. Ilustrazioa beharrezko ikusten al duzu gazteentzako lanetan?

Lagungarri izan ohi da normalean. Kasu honetan, misterio kutsu hori lortzeko tonu ilunekin egindako

«Hainbat oihartzunekin osatutako pertsonaia da Esther, liburuko protagonista»

jokoak balio izan du nahi genuena lortzen. Adinak aurrera egin ahala, marrazkiak gutxituz joaten dira baina ni bi generoen aldekoa naiz. Ilustrazioak helduentzako liburuetan ere jolas politik sor ditzake. Garestiago ateratzen dira baina ez dugu ahaztu behar ilustrazioa ere. **Misterioa argitzea lortzen al du Estherrek?**

Poliziakoa denez, kasuaren amaiera edo igarkizunaren konponketa eta erantzuna eman egiten da. Gaur egungo nobela modernoak amaiera airean uzteko joera bat badu baina gazteak kexatu

egiten dira. Behin nuen froga pertsonaia erdi bidean utziaz, baina gazteak haserretu egiten ziren! Oraingoan bururaino eraman dut kontakizuna.

12-14 urtetik gorako irakurleentzat idatzi duzu. Gurasoentzat ba ote du bigarren irakurketarik?

Jakina, badago gurasoentzako irakurketarik. Nahiz eta gazte eta haurrentzat izan, beti saiatzen naiz zenbait mezu orokor sartzen. Gogoeta batzuk, irudi poetiko batzuk, bizitzari buruzko metaforak izaten dira. Misterioa argitu arte ere badira horrelakoak. Lehenengo kapitulua nire ustez berezia da, apropos, eta pertsonaia aurkezte aldera erritmo lasaian egina da. Pertsonaiaren emetasuna lantzeko erritmo lasai darabilt eta abentura hasten denean azkarrago joaten da istorioa. Gaur egun, idazlea literatura egiten saiatzen da.

Lan zerrenda amaigabea duzu, haur eta gazteentzat lan mordoak argitaratu duzu. Eskoletako irakle izateak izan al du eraginik idazteko garaian?

Eragin zuzena izan du. Hasieran helduen literaturarekin hasi nintzen, poesia hermetiko ilun bateginaz. Nire lanbideak poesia eta narrazio xumearekin topo egitera

eraman ninduen. 20rekin hasi nintzen idazten baina 36ra arte ez nintzen ausartu genero hauetara salto egiten. *Begi ninaren* poemak Zizurkilgo eskolan egiten ari nintzen ikerketa batekin batera ateratu eta beti izan du lotura zuzena. Egunez parke batean esaterako, nire semearekin txikia zenean abesten nizekin abestien bilduma bat da. Beraz, aitatasunak ere izan du eragina.

«Zortzi urteko haurra ordubetez liburuan sartuta gozatzen ikustea poza ematen du»

Egungo jendarteari argazki bat ateratu behar bagenio, zer nolako osasunarekin irudikatuko zenuke euskal literatura?

Baikor ikusten dut, normalizatzen ari den heinean, munduan zehar badabil euskal literatura. Hemen idazten dena kanpoan idazten denarekin alderatuta, ez da lotsatzeko euskaldunon maila. Euskal Herrian, Espainian bezalaxe, literatura arina ari da nagusitzen; agian hori izango da etorkizuna. Ez da niri gustatzen zaidan bezalako, errazarekin ez dugu gozatzen, azpian indar poetiko edo mezu sakon bat ez badu.

Eta gazteen irakurzaletasunari dagokionean, zer esango zenuke?

Antzeko eran ikusten dut. Irakurzaletasun librea ez dakit garatzen ote doan, baino ikastetxeetatik egiten den lan horrek izaten du eragin positiboa. Irakasle dezente lortzen dute irakurzaletate giro on bat. Lehen hezkuntzan ongi doala esango nuke, bigarren hezkuntzan gehixeago kostatzen da ordea. Irudiz inguratutako mundu batean, motibazioak ez badago zaila da aurrera egeia. Liburutegiaren eta etxean ere ari dira lantzen. Alderdi ezkor asko dauden arren, alderdi positiboak ere ikusten ditut. Zortzi urteko haurra ordubetez liburuan sartuta gozatzen ikusten duzunean, poza ematen du.

EHUKO Euskaraz Zerbitzuan diharduzu lanean. Ikastetxeetatik Unibertsitateara egin zenuen jauzi. Gazteen idazle bezala izendatuko zintuzkete batzuk, baina beste hainbat lan idatzia zara: narrazioan 'Izar bat agertu da', zenbait nobela, saiakeran 'Bularretik mintzora', poesia lan ugari... Ba al duzu proiekturik esku artean?

Bai, aforismo mordo bat ditut, nobela bat ere badabilkit buruan, poemak, gaztetxo eta haurrentzako ere mitoen eta euskal kontakizunen lan bat ari naiz egiten, greziar mitoak... noiz aterako diren ez dakit, material asko niretzat edo hemendik hamar urterakoak, batzuk argitaratzen direnak eta besteak argitaratzen ez direnak izaten dira. Denetarik dut, baina ez dakit zer izango den lehena.



Goian, eskuz eginko taulak eta surfaren egunerokotasuna irudikatu nahi duten argazkiak eta marrazkiak. Behean, ezkerrean, ezohikoak diren surf taulak eta eskuinean surfeko pertsonaiak. I.T.

Surfaren oinarriari begirada

Kultura » Gko Galerian ikusgai dago 'Ertza' erakusketa azaroaren 6ra arte; surfa kirola baino gehiago dela erakustea du helburu.

INIGO TERRADILLOS

Surfzaleak dira Kimetz Martinez (*The Singlefin Rebels*) eta Jorge Malkorra (*The Badsurfers Club*) tolosarrak. Baina, zaletasuna baino gehiago, bizitzeko filosofia da eurentzat olatuen gainean egiten den kirola. Ikuspuntu hori erakutsi nahi dute Gko Galerian jarri duten *Ertza* izeneko erakusketan.

Duela urtebete inguru hasi zen prozesu guztia, Galeriarako Gari-koitx Muruak Jorge Malkorrari surfarekin eta itsasoarekin loturiko erakusketabat egitea proposatu zionean. «Orduan nik buruan nuen ideia Kimetz azaldu nion, gustatu zitzaion, eta bete-betean sartu ginen proiektuan», azaltzen du Malkorrak. Proiektuaren izena da hasieratik erabakita zuten gauza bakarra: «Ertzak toki batean, bestean, edota denen erdian esan nahi dezake, eta esanahiaz gain hitzak duen sonoritatearekin asko gustatzen zitzaigun», gehitzen du Malkorrak.

Argazkiak, pertsonaiak, taulak

Pixkanaka eta era «oso naturalean» joan dira osatzen erakusketa, ideiarekin eta islatu nahi zutenarekin bat baitzetozen biak. Horrela «surfaren oinarriak islatzeko eta ezagutarazteko» helburuz, argazki, marrazki, pintura edota taulez osaturiko lana burutu dute.

Argazkiei dagokionez, «ez ohi-koak» dira, «aldizkarietan azalduko ez liratekeenak, ez perfektuak». Kimetz Martinezek dioenez, «surfaren inguruko egunerokotasuna irudikatzen dute, jendeari nik ikusten dudana errealitate hori erakutsinahi baitiot». Itsasoarekin eta surfarekin lotura duten marrazkiak ere egin ditu Martinezek, eta horien alboan taulak ere ikus daitezke, horietako batzuk, gainera, berak eskuz eginak. «Taulak ere ezohikoak dira, merkatuan aurkitu ezin direnak eta bildumarako erabiltzen dira itsasorako baino gehiago: Garai bateko diseinu eta

forma dute, eta ez da erraza jendea horrelakoekin ikustea». 60. hamarkadako da bertan ikus daitekeen zaharrena, baina badira berriagoak ere.

Bestalde, surfaren munduan pisua duten pertsonaiei ere egin diete so erakusketa berezi honetan. «Esaterako, Patxi Oliden surf taulak egiten aitzindaria izan zena ikus daiteke erakusketaren zati batean, eta 50. hamarkadatik hasita surfaren oso ezagun izan diren pertsonaiak», dio Malkorrak. «Ironia pixka bat ere erabili dut, eta surfa bizitzaren zutabeetako bat dela irudikatu dut».

Surfa, eguneroko bizimodua

Bi tolosar hauek ez dute surfaren gaur egungo moda jarraitzen, baizik eta, surfaren oinarriari begiratzeko diete, eta euren bizimoduan islatzen dute. «Surfa gure eguneroko zerbait da, ez da soilik ohitura bat», azaltzen du Malkorrak. Martinezen arabera, berriz, «surfa bizimodu bat da». «Ez naiz itsasora joaten soilik kirola egitera, behar duan zerbait delako baizik. Azkenean zure bizitzako jarduerak guztiak erlazionatzen dituzu surfarekin».



Kimetz Martinez eta Jorge Malkorra artista tolosarrak. I.T.

Probatzeko aukera

Lehen aldiz jarri dute erakusketara ikusgai, eta Gko Galerian egon eta gero leku gehiagotan erakusteko aukera izatea gustatuko litzaieke. Halaber, bisitariek euren ikuspuntua ematea gustatuko litzaiekeela diote, «erakusketa bizia eta eman-korra izate aldera».

Azaroaren 6ra arte izango du nahi duen orok *Ertza* erakusketa ezagutzeko aukera, eta horretaz gain, probatzea ere posible izango da. Izan ere, bertan ikusgai jarri dituzten taulak itsasoko olatuen gainean erabiltzeko eraman ahal izango dituzte 2-3 egunez, hala eskatzen dutenek.



Uganen, zalduna gailendu zaio txirrindulariari

TOLOSA Ugame auzoko jaietan apustu berezia jokatu zen atzo goizean. Zubiurre jatetxearen aurrealdeetik abiatu, eta auzoko gainera igo behar ziren bi parte-hartzaileak: Joxe Mari Intsausti bizikletan, eta Iñaki Garmendia zaldiarekin. Bietan azkarrena, zalduna izan zen. Bost minutu inguru behar izan zituzten bi lehiakideek, ibilbidea zeharkatzeko. Hauen aurretik, ohi bezala, txirrindularien igoera izan zen. Jende ugari bildu zen Uganeko kaskoan, proba ikusteko. Bide batez, gehienek, mokadutxo bat jateko ere aprobetxatu zuten. Gero auzo bazkaria egin zuten han bertan. I. TERRADILLOS

Laburrak

Abesbatza Lehiaketako abonoak gaur arte salgai

TOLOSA Hilaren 27tik azaroaren 1a bitartean 42. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa hartuko du Tolosak. Hala, hara joan nahi dutenek gaur izango dute abonua erosteko azken aukera. Hauek Servikutxa (943 00 12 00) eta www.kutxa.net bitartez eskuratu daitezke. Helduentzako abonoen prezioa 56 eurotako da. Bestalde, herenegundik salgai dira banakako sarreak. Helduenek 10 euro balio dute, eta 14 urtetik beherakoek lau. Hauek Txapelketa hasi arte egongo dira eskuragarri.

Euskal Herria eguneko argazkiak oraindik ikusgai

IBARRA Asteburu honetan, ikusgai izango da Benito Izagirre kultur etxean, *Euskal Herria eguna: Ibarra-Lizarra* argazki erakusketa. Bi herrien arteko anaitza iruditan bil-tzen da bilduma honetan. Gainera, interesa dutenek, argazkien kopiak eskuratu ditzakete. Horretarako, erakusketa aretoan dagoen, izen-emate orrian egin behar da eskaera. Astelehenera arte egongo dira zintzilik argazkiak, hortik aurrera, Alurr dantza taldeak antolatutako bildumak hartuko baitio erreleboa.

San Estebango Kultur Astea festa onenen pare

Tolosa Atzo arratsaldean haurrei zuzendutako ekitaldiak izan ziren nagusi; gaur Koxkorrenaren doinuekin amaituko dute.

ERREDAKZIOA

San Esteban auzoan Kultur Astea ari dira ospatzen egun hauetan, eta inguruko edozein jaitan bezain beste ekitaldi ari dira egiten. Atzo arratsaldean, haurrei zuzendutakoak izan ziren nagusi. 16:30etik aurrera, joko ezberdinak egin zituzten: lokotx biltzea, aulki-jokoa, itsulapikoak apurtu... Bitartean, haur askok, ilaran jarrita, zalgurdian osteratxo egiteko itxaroten zuten. Izan ere, joan den urtean martxan jarritako egitasmoak aurtenera arrakasta izan du, eta etenik gabe ibili dira auzotik barrena bueltaka.

Hauen jokoez gain, mus txapelketa, buruhandiak, txokolata jatea... ere izan ziren.

Gaur arratsaldean esango diote agur San Estebango auzotarrek Kultur Asteari.

» EGITARAUA

Urriak 17, gaur

- **09:00.** Diana herriko txistulariekin.
- **10:00.** Trikitixa baserrietan.
- **11:00.** Meza auzoko hildakoan alde, San Frantzisko elizan.
- **12:00.** Toka txapelketa gizonezko eta emakumezkoentzat, auzoko txarangak alaituta.
- **14:00.** Auzoko babarrun jatea.
- **Ondoren.** Dantzaldia Koxkorre-ora orkestrarekin.



Auzotik barrena zalgurdian itzuli bat emateko aukera izan zuten. E. E.



Euriagatik, Ferialeku barruan egin zituzten haurrentzako jolasak. E. EZEIZA

MUNDUKO SUKALDARITZA

→ EUSKAL HERRIAN

EUSKARAZKO
LEHEN
SUKALDARITZA
BILDUMAREN
4. alea

ALEMANIA • JAPONIA
MAROKO • BREITAINIA
INDIA • MEXIKO • VIETNAM
ARGENTINA • LIBANO
ITALIA • TXINA

berriarekin eskaintza berezia

EGIN ESKAERA
urriaren 29a baino lehen
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

Laguntzailea:
FAGOR
www.fagor.com

AUKERAZ EZAZUL
BUZI EUSKARAZ
berria

Egun-pasa polita egin dute pertsona gorrek Tolosan

Tolosa » Euskal Herri osotik etorritako gorren elkarteetako kideak izan dira; herria ezagutu eta antzezlanak ikusi dituzte.

antzerki emanaldiak zituzten zain Leidor aretoan. Hain zuzen ere, pertsona gorrek eginiko hiru antzezlanaz gozatu ahal izan zuten. Egun atsegin igaro zuten, eta giro polita nabari zen euren artean.

E. EZEIZA - I. TERRADILLOS

Asko dira pertsona gorrek euren eguneroko jardunean topatzen dituzten zailtasunak, eta egoera hori herriar guztiak ezagutu dezaten Gainditzten Tolosaldea eta Goierriko Pertsona Gorren elkarteak Gorren Komunitatearen VII. Sentsibilizazio Astea antolatatu du. Bada, atzo izan zuen egun nagusia ekimenak, eta hainbat ekitaldi izan zituzten egun osoan zehar.

Euskal Herri osoko pertsona gorren elkarteak gonbidatu zituzten Gainditzten elkarteetako egun-pasa Tolosan egitera. Hala, goizean Alde Zaharra ezagutu zuten, eta Gorrotxategi Konfiteri museo bisitatzeko aukera izan zuten, bertako txokolata probatzearekin batera. Handik irteeran Zerkausira abiatu ziren larunbateroko azoka bertatik bertara ikustera.

Hurrengogeldialdia Gainditzten elkarteetako egoitza berria egin zuten, Emeterio Arresen, hain zuzen. Beste elkarteetako kideei euren egoitza erakutsi eta mokadutsoa hartzeko baliatu zuten unea. Handik, berriro ere kalera irten ziren, eta ederki bazkaldu ostean,

Ohiko jardueretan trabak

Errazetik gutxi du, ordea, pertsona gorren egunerokoak. Gainditzten elkarteak kideek, mugikorrez hitz egitean dituzten zailtasunak jarri zuten atzokoan adibide moduan: «Telefono konpainiekin duela gutxira arte ez gintuzten aintzartzen eta ez zituzten guretzako moduko kontratuak, mezuak eta bideo bidetako deiak sartzen dituztenak, alegia; Izan ere, guk dei arruntak ez ditugu erabiltzen, eta hortaz ez dugu zertan horiek ordaindu».

Bizitzako beste arlo askotan errepikatzen diren jardueretako bat baino ez da hori, eta dioten bezala, «oso pixkanaka» ari dira gainditzten eta hobetzen.

Ekitaldien jarraipena

Sentsibilizazio Astearen barruan, San Frantzisko pasealekuan ikusgai daude gorrek komunikatzeko dituzten trabei buruzko panelak, eta azaroaren 21era arte izango da Jon Balentziagak eta Enrike Zeberriok Fronton kafetegian jarritako erakusketa. Ekitaldiekin amaitzeko, azaroaren 20ean Zeinu Hizkuntzan eginiko Lehenengo Nazioarteko Film Laburren Jaialdia izango da Leidorren.



Goian, Gorrotxategi Konfiteri museo bisitatzen atzo goizean. Behean, eguerdian Gainditzten elkartearen egoitzan mokadutsoa hartzen, kideetako batek telefonoz nola hitz egiten duten erakusten duen bitartean. E.E./I.T.

Estreinatzearen Alurren emanaldi berrirako sarrerak salgai

Ibarra » Abenduaren 10ean Tolosako Leidor antzokian ikusi ahal izango da lehen aldiz 'Oinazez' izeneko ikuskizuna.

ERREDAKZIOA

Alurr dantza taldeak bere lan berrira estreinatuko du Tolosako Leidor antzokian, abenduaren 10ean. 22:00etan izango da emanaldia eta Oinazez du izena. Orain arteko arekin hautsiz, ikuskizun berritzailea eta desberdina prestatu dute. Sarrerak jada salgai daude 10 eurotan, 943001200 telefonora deituta edo www.kutxa.net helbide elektronikoa.

Tradizioaren eta berrikuntza-aren arteko elkarlan bat izango da Oinazez, hainbat dantza eta koreografiatan oinarrituta. Koreografia gehienak Aiert Beobidek sortu ditu. Musikak, berriz, Alboka, Korrontzi, Tomas San Miguel eta beste hainbat talde eta musikarirenak dira, eta Jagoba Astiazaran eta Iñar Sastrek, Alurr dantza taldeko musikariek, moldaketak egin dituzte eta baita hainbat konposaketa ere.

Hala ere, abendua baino lehen Euskal Herriko txoko ezberdinetan hainbat emanaldi eskainiko ditu Alurrek. Esaterako, datorren asteburuan, hilaren 24an, Donostiako Maria Kristina hotelean izango dira, eta azaroaren 21ean, taldeko gaztetxoekin Baionara bidaiatuko dute emanalditxo bat eskaintzera.

«Elkar ulertzeko bestearen azalean jartzea ezinbestekoa da»

SONIA ULAZIA » Pedagogoa

R. C.

Sonia Ulaziak *Komunikazioa eta laguntasuna, bizitza osasuntsurakogiltzarri* izeneko hitzaldia eskainiko du bihar 17:30ean Ikaztegi-tako Liburutegian. Gizarte-harremantarako gaitasunak hobetzen lagunduko du pedagogoa. Komunikazio motak, komunikazioa hobetzeko teknikak eta gizarte-gaitasunak bezalako gaiak landuko ditu. Hitzaldia berez, pertsona helduei zuzenduta egongo da, baina edonorentzako izango da lagungarria Ulaziaren hitzaldia, izan ere «pertsona guztiarentzako da garrantzitsua harreman osasuntsuak izatea».

Zein izango da bihar eskaini duen hitzaldiaren muina?



HITZA

Abiapuntua gizakiak gizaki sozialak garela eta horregatik gure gizarte-naturarengatik definitzen garela izango da. Oso garrantzitsuak dira bizitzan inguruko pertsonekin izaten ditugun harremanak. Harremanek ematen diguten gizarte-laguntza ezinbestekoa da, babesa ematen digu. Hitzaldia pertsona nagusiei zuzenduta dago, nahiz eta nahi duten guztiak egiten dituztela. Horregatik esaten diet garrantzitsua dela harremanak mantentzea edota harreman berriak egitea.

Harremanetan komunikazioak berebiziko garrantzia du.

Komunikazioa oso garrantzitsua da, bai ahozkoa eta baita ez ahozkoa ere. Hau da, zer esaten dugun eta nola esaten dugun zaindu behar dugu. Komunikazioan gauza asko hartu behar dira kontutan; entzutea oso garrantzitsua da, baina entzute aktiboa egin behar da. Entzuten eta ulertzen saiatu behar gara, eta hor enpatia da garrantzitsua. Elkar ulertzeko bestearen azalean jarri behar gara, hori da enpatia.

Gizarte-gaitasunak ere landuko dituzu hitzaldian, zein gaitasun dira horiek?

Harremanetan gaitasun batzuk ari gara biltzen etengabe. Gaitasun horiek eskatzen jakitea, ezetz esaten jakitea edota besteei gauza positiboak azaltzen jakitea dira. Hau da, laguntza behar dugunean eskatzen jakin behar dugu eta zerbait egiteko gogorik ez badugu ere ezetz esaten jakin behar dugu, eta noski, besteak ere hori onartzen jakin behar du. Kritika bat egitea ere gaitasun bat da, baina era egokian egin behar da. Hau da, zerbait gus-

atzen ez bazaigu hori asertzio-moduan azaldu behar dugu. Gizarte-trebatasun asertibitatearekin lotuta daude. Norberaren nahiak, eskubideak, irizkiak... azaltzea garrantzitsua da eta baita besteenak errespetatzea ere. Harreman guztietan lortu behar dugun zerbait da.

Nola egin behar da, beraz, kritika bat?

Asertzio-modu batean egin behar da, eta garrantzitsua da saiatzea ez haserretzen. Horregatik da garrantzitsua nola esaten diren gauzak, eta zehatzak izatea. Momentu jakin batean zer haserretu zaituen esan behar da, zehatzak izanda, eta ez orokortzea, «zuk beti hau egiten duzu» esatean, adibidez, beste pertsona kritikatzeko duzu eta kritikatu behar duzuna da zer egiten duen eta ez pertsona bera. Era berean, gustatu ez zaizun jokoera horren aurrean zu nola sentitu zaren esan behar da. Beti ere tonu positiboa batean eta bestearen ikusuntua entzuteko eta ulertzeko asmoarekin.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldeak: 687 410 118. ibarraldeak@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Azoka

■ **Zizurkil.** XIII. Azoka Berezia 11:00etatik 14:30era eta 16:30etik 19:30era. Kantu Jira 12:00etan, haurrentzat jolasak; 13:00etan postu onenari saria; 14:30ean txahal errea Zimiterioan; 17:00etan poneyak eta jolasak eta 18:00etan Husky txakurren erakustaldia.

Kultur Astea

■ **Tolosa.** Kultur Astea San Esteban auzoan: 09:00etan diana herriko txistulariekin; 10:00etan trikitixa; 11:00etan meza, San Frantzisko elizan; 12:00etan toka auzoko txarangak alaituta; 14:00etan babarrun jatea; ondoren dantzaldia.

Musika

■ **Tolosa.** Hodei Truk abesbatza-ren *Hodei Pop* emanaldia 12:00etan, Leidorren.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidorren, gaur: *Adele y el misterio de la momia* filma, 17:00etan. Bihar (ikuslearen eguna), 20:30an, *Gainsbourg* filma.
■ **Villabona.** Gurean gaur: *Karate Kid* 17:00etan, eta 19:30ean *Que se muevan los feos*. Bihar, *Que se muevan los feos*, 21:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartz auzoa, 9. 943 67 51 18.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 948 56 42 48.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 948 51 31 28.
Bihar
■ **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Atzo bildutakoei gaur zukua atereaz

ALKIZA ■ Asko ari dira ikasten herritarrak, eta, batez ere gaztetxoak, sagarrei buruz urte honetan. Eskolan sagar eta sagarrondo motak desberdintzen eta dituzten onuraz irakatsi diete, eta orain ekimena borobiltzeko, Intxurain elkarteak bultzatuta, sagardoa nola egiten den ere ikasiko dute.

Hain zuzen ere, atzo arratsaldean gazte nahiz helduek osaturiko herritar talde bat sagarrak biltzen aritu zen, eta gaur elizako arkupean dolarea jarrri eta sagardoa egingo dute. Zukua dastatzeaz gain, taloak jateko aukera ere izango da, guztia trikiti doinuek alaiturik. i.r.

A Agurrak



Josefa Galarza Goñi (Amezketan). Bihar 103 urte. Muxu handi bat etxekoan partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitzan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>